




Hizkuntza erabileraren neurketa



Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea

2003ko uztailan

AURKIBIDEA

1. Sarrera

1.1. Lan metodologia

2. Idatzizko materiala

- 2.1. Egitarau osatua**
- 2.2. Prentsa oharrak**
- 2.3. Web orria**
- 2.4. Jazzaldiko kartela**
- 2.5. Programak (Triptikoa eta orria)**
- 2.6. JazzEuskadi**
- 2.7. Bestelakoak**

3. Aurkezpenak

4. Ondorioak

Material grafikoa

1. Sarrera

1998. urtean BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren inguruko lehen behaketa egin zuen eta, orduz geroztik, urtero aztertu du musika jaialdia. BAGERAk Donostian egiten diren hainbat ekintzetan hizkuntza erabilera zer nolakoa den aztertu ohi du.

Izan ere, Donostian egunetik egunera, euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari gara lanean, eta hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzetan euskararen erabilera neurtzea beharrezkoa da.

Jazzaldiaren funtsa, musika emanaldiak diren neurrian, ahozko hizkuntza erabilera saioen aurkezpenetan baino ez da gertatzen. Era berean, idatzizko materiala, oinarrizko esku liburueta mugatu da, batez ere.

Donostian egiten diren beste ekintza batzuek ez bezala, ahozko edo idatzizko hizkuntza aztertzeari ekin diogu, euskarak hauetan jasotzen duen tratamendua ezagutu asmoz.

Behaketa eta bertatik ateratako emaitzak egoera baloratzeko bitartekoak besterik ez dira. Honela bada, garrantzia urtean zehar egindako lanak eta bertatik ateratzen diren emaitzek dute.

1.1. Lan metodologia

Denetara zortzi lagun aritu dira jarraipena egiten, euskararen ahozko erabileraren eta idatzizko materiala aztertuz.

2. Idatzizko materiala

2.1. Jazzaldiaren egitarau osatua

Jazzaldiari buruzko informazioa luze zabalean azaltzen den liburuxka da. Musikari eta talde bakoitzaren berri luze zabalean ematen da. Aurtengo ediziokoa 32 orrialde ditu.

Lehen orrialdean, azalean 2003ko kartela azaltzen da. Data elebietan azaltzen da, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz eta Heineken 38. Jazzaldia jartzen du. Azken orrian egitaraua ageri da modu laburrean. Hirueletan idatzita dago lehenik euskaraz, ondoren gazteleraz eta azkenik ingelesez.

Sarrera elebietan idatzirik dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz eta hitzez hitzezko itzulpena da, euskaraz eta gazteleraz informazio bera azaltzen da.

Liburuxka honetan, dauden gunen desberdinetan egunez egun dauden ekitaldietan parte hartuko duten taldeei buruzko azalpenak datoz, informazio guztia elebietan dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Donostiako Jazzaldia saria, turismo sorta eta beste kontzertu batzuk ataletan informazioa lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz azaltzen da, hitzez hitzezko itzulpena da gainontzeko orrialdeetan bezala. Argibide orokorrak ere euskaraz eta gazteleraz ageri dira, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Iragarkiekin ez da testuarekin bezala gertatzen eta gaztelera da hizkuntza nagusia, bai egitarau osatuaren liburuxkan, baita kalean edo jazzaldiaren gunetan topatutako edozein soportean.

Gaztelera hutsezko iragarkiak:

2 or. Frigo

6 or.aren erdia Sony Music Media (disco baten iragarkia)

8 or. Cuadernos de Jazz eta La Huella sonora-ren produkzio baten iragarkia

10 or. El Diario Vasco

12 or. Menabi

17 or. Heineken

24 or. 40 principales

28 or. Jazz Euskadi

29 or. Universal

30 or. Nordic Mist

Euskara hutsezko iragarkiak:

22 or. Kutxa

Euskaraz eta gazteleraz azaltzen diren iragarkiak:

16 or. Heineken (kartela)

26 or. Getxoko Jazzaldia

Ingelesez:

14 or. Satchmo Jazz records

2.2. Prentsa oharrak

Aurreko urteetan baino prentsa ohar gehiago jaso dira Irutxulon, email bidez. 18 mezuetatik, 10 euskaraz soilik bidali zaizkigu, 2 elebietan, 2 gaztelania hutsez, 1 hirueletan eta beste 3 gaztelaniaz bidali arren (web orriko formatoan), informazioa euskaraz jasotzeko aukera bazen, web orriaren loturan klikatuz gero.

2.3. Web orria

www.jazzaldia.com helbidean sartuz gero, pantailan ageri den hizkuntza gaztelera da. Ondoren, euskara edo ingelesa aukera daitezke.

2.4. Jazzaldiko kartela

Aurtengo Jazzaldia iragartzeko kartelean, (egitaraua luze zabalean ageri den liburuaren azala da) azaltzen den informazioa laburra bada ere, euskaraz eta gaztelaniaz dago.

2.5. Programak (esku-orriak)

Orrialdeko programan, datak, lekuak eta bestelako oharrak ere hirueletan azaltzen dira. Lehenik euskaraz eta gero gaztelaniaz eta ingelesez.

2.6. JazzEuskadi

Aurten ez dugu materialik eskuratu. Hala ere, ez dugu aipatugabe utzi nahi, egitarau osatuan JazzEuskadik jarritako iragarkia gaztelania hutsean dagoela ikusteak, kezka sortzen baitugu. Euskal Herriko jazzaldiak biltzen dituen gunean euskararekiko hutsikeria ote dagoen da kezka.

2.7. Bestelakoak

Jazzaldi aurreko jarduera moduan, Hello Mr. Jazz izeneko mintzaldi didaktikoak izan dira. Hauek aurkezteko egindako esku orria elebitan dago, bata bestearen itzulpena da (atzean, eitb irratia iragarkia dago, eitb irratia besterik ez du jartzen).

Zurriola eta Kursaalgo gunean dauden postuetan (tiketerak, tabernak, informazio postua,...) prezioen zerrendak gaztelera hutsez daude. Zerrenda hauetaz gain, beste ohar txartelak 4 hizkuntzetan daude (tiketak hemen eta tabernako beste ohartxo bat). Edaria eskuratzeko txartelak gaztelera hutsez daude. Zurrioloako hondartzako agertoki berdean, “escenario verde” soilik jartzen zuen. Bertako pantaila baten bidez, hondartzak garbi mantentzeko oharra hirueletan jarri zuten, baina, Heinekeneko leloa gaztelera bakarrik agertzen zen.

Aurten, Jazzaldiak El Diario Vasco egunkarian egindako 7 iragarki bildu ditugu. Iragarki hauetan, Jazzaldiko egitaraua, esku programetan bezala ageri da, elebietan. Gero, nabarmentzen den esaldi bat ikusten da. Esaldi hau, 7 iragarkietatik 4tan gaztelera dago eta 3tan euskaraz.

Kaleko faroletan Jazzaldiko kartela eta Heinekenen iragarkiarekin zintzilikario batzuk ikusi ditugu. Jazzaldiko kartela elebietan dago, baina Heinekenenean gazteleraz dagoen esaldi bat dago.

3. Aurkezpenak

Aurkezpenak izan diren kasuetan elebietan izan dira, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Kursaal eta Trinitate enparantzan egin diren kontzertuetan izan dira aurkezpen gehienak, guztiak elebietan. Aipatzekoa da, Trinitate enparantzan egindako aurkezpenetan informazio propioa erabili dela erabilitako hizkuntzetan (euskaraz eta gaztelaniaz).

Agertoki berdean, Frigo gunean eta Heineken karpan ez da aurkezpenik izaten, baina izan denetan, elebietan egin dira. Hemen normalean taldeak hartzen du hitza, hori dela eta ingelesa eta gaztelera izan dira gehien entzundako hizkuntzak.

4. Ondorioak

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak Donostian egiten diren hainbat ekintzetan hizkuntza erabilera zer nolakoa den aztertu ohi du. BAGERAk 1998. urtetik, Donostiako Jazzaldian euskararen erabileraren behaketa egiten du urtero.

Izan ere, Donostian egunetik egunera, euskarak dagokion lekua, presentzia eta indarra lor dezan ari gara lanean, eta horretarako hiritarroi eskaintzen zaizkigun ekintzetan euskararen erabilera neurtzea beharrezkoa da.

Donostiako 38. Jazzaldian BAGERAk urtero bezala, ahozko zein idatzizko hizkuntzaren neurketa egiten du.

Idatzizko hizkuntza

Idatzizko materialean, hau da, Jazzaldiaren egitarau osatua, egitarau laburtua, e.a.. elebitasuna nagusi izan da eta lehenengo hizkuntza oro har, euskara izan da. Elebitan dauden testuak (euskaraz eta gaztelera), bata bestearen itzulpen literalak dira. Eta beti lehenik euskaraz eta ondoren gaztelera idatzita daude.

Egitarau laburtuan, egitarau osatuan eta orohar idatzizko materialean azaltzen diren iragarle etxeen iragarkiak gehienak gaztelera hutsez daude. Hamalau iragarle etxe daude, horietatik hamar gaztelera hutsez daude eta euskara hutsezko bakarra dago. Emanaldietan azaldu diren iragarkiak ere gaztelera hutsez zeuden.

Irutxulon, jasotako oharretatik gehiengoak euskara hutsez jaso ditugu, gaztelera hutsean bi, eta gainontzekoak elebietan edo hirueletan iritsi dira.

Web orriaren kasuan, gaztelera da lehenengo hizkuntza eta ondoren aukeratzeko aukera ematen du euskaraz nahiz ingelesez.

Ahozko hizkuntza

Ahozko hizkuntzari dagokionez, aurkezpenak egon direnetan elebitasuna mantendu da, lehenengo hizkuntza euskara izanik eta ondoren gaztelera.

Laburbilduz, emaitza orokorrean baikorra da, oro har elebitasuna mantendu delako bai aurkezpenetan baita idatzizko materialean ere. Hala ere, aurreko urtearekin alderatuta ez da aurrerapausorik eman. Iaz aipatutako xehetasun txikiak errepikatu egin dira eta iragarleena ez da landu, hau da, iaz bezala aurten ere, gaztelera izan da iragarle etxe gehienen hizkuntza.

Proposamena

BAGERAk testuak itzulpen soilak beharrean, hizkuntza bakoitzean informazio propioa eskaintzea proposatzen du.

Iragarkiei dagokienez, Jazzaldiko antolatzaileek iragarle etxeei gutxienez elebitasuna mantendu dezaten eskatu beharko liekela uste du BAGERAk. Jazzaldia

irauten duen egunetan, Donostiako hizkuntz paisaia elebiduna izatea eta iragarleek programan azaldutako iragarki, e.a.en bidez zabaltzen duten publizitatea egiterakoan, euskara kontuan hartua izatea nahi du BAGERAk.

Azkenik, datorren urtean, aurtengo behaketaren emaitza kontuan hartu eta aipatutako hutsuneak zuzentzea nahi du BAGERAk.

BAGERAk Donostiako Jazzaldiko arduradunak zoriondu nahi ditu euskarari ematen dioten lekuagatik eta erabilitako euskara maila ere txukuna delako. Era berean, orain artekoari eustez gain, euskara gehiago indartzera animatu nahi ditugu Jazzaldiko antolatzaileak.

Donostian, 2003ko uztailan



**Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea**

Pedro Egaña 2, 1 Esk.
20006 Donostia
Tlf.: 943 467181
bagera@bagera.net
idazkaritza@bagera.net